

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Nafarroako Aratxea markak ekoizleei eta kontsumitzaileei ematen dien bermea azpimarratu du Elizalde kontseilariak

ENAC ziurtagiria lortu zuenetik hamar urte igaro direla-eta egindako ospakizunean esku hartu du, eta egiaztagiri horrek bermatzen du ekoizpenak ziurtagiriaren Europako araudia nahiz irizpideak betetzen dituela

Osteguna, 2016.eko urriak 20

Landa Garapeneko, Toki Administrazioiko eta Ingurumeneko kontseilari Isabel Elizalde Nafarroako Aratxea Adierazpen Geografiko Babestua (AGB) kontsumitzaile eta ekoizleentzat zer abantaila dituen azpimarratu du. Marka horrek ekitaldi bat antolatu du gaur Egiaztatze Erakunde Nazionalak (ENAC) ziurtagiria eman zionetik hamar urte igaro direla ospatzeko.

AGB, horrenbestez, Espainiako Haragi Freskoaren lehen Kontseilu Arautzaile bihurtu zen, eta hura produktuaren erakunde ziurtatzaileetarako araua betez egiaztatzen zen.

Egiaztatze Erakunde Nazionala (ENAC) irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatua da, eta entsegu-laborategiek nahiz erakunde ziurtatzaileek egindako entsegu analitikoaren fidagarritasuna egiaztatzeaz arduratzen da. Gainera, erakunde horrek egiaztatze-sistema bat estatu-mailan koordinatzen eta zuzentzen du Europako arauetan ezarritako irizpideak betez.

Kontseilariak egiaztapenaren abantailak aipatu ditu, haien artean: produktu bat identifikatzen eta bereizten uztea; kontsumitzaileen sinesgarritasuna eta konfiantza handiagoa izatea; edo salmenta-puntuetan edo banaketa-kateetan ezaguna izateko ematen duen laguntza. "Ternera de Navarra/Nafarroako Aratxeak ondoren jatorri-deitura gehiagok jarraituko zuten bidea zabaldu zuen", aipatu du.

Nafarroako Aratxeak 539 ustiapen ditu gaur egun erregistratuta, haietatik 16 berriak; 521 abeltzain ditu; 4 hiltegi eta haragia zatitzeko baimendutako 4 areto; salmentarako baimendutako 185 harategi, haietatik lau berriak, eta ziurtatutako 2,2 milioi kilo haragi, hau da, % 3,5 gehiago.

Elizalde kontseilariaren hitzetan, "harategira sartu eta Nafarroako Aratxea erosten dugunean, horrek esan nahi du gure mahaietara helduko den produktuaren kalitatearekin konprometitutako abeltzainak, gizon-emakumeak daudela; erosten ari garen xerra hori gure mendietan jaio eta hazitako animalienak direla, Pirinioetako arrazako aratxea dela ziur asko, bularra eman zaiona sei hilabete bete arte, eta ondoren Larrea nahiz lehengai naturalekin elikatu direnak". Halaber, xerra hori heltzeko epea

zapi egunekoa izan dela gutxienez hiltegiaren eta harategiaren artean, harik eta kolore, zapore, usain eta samurtasuneko baldintza egokiak izan arte; "hortik dator hain berezigarria duen kolore gorri hori. Horrez gain, mozteko metodoa tradizionala izan dela ziurtatuko da, zenbait kontrol gainditu dituela.

"Nafarroako Aratxeak historia luzea du jadanik", esan du kontseilariak, eta gogora ekarri du duela bi urte hogeigarren urteurrena ospatu zuela. "Ternera de Navarra/Nafarroako Aratxearen hogeitau urte hauetan harrotasunez esan daiteke aurreikusitako helburuak lortu dituela, eta bidean topatutako zailtasunetatik indartuta atera dela".

Elikagai osasungarria eta ezinbestekoa dela aipatu ondoren, kontseilariak zorionak eman dizkie "duela hamar urte ziurtagiria lortzen lagundu zuten pertsona guztiei, hari esker, aitzindari bihurtu baikinenez beste askok ondoren egin duten bide batean".

Ekitaldian esku hartu du ere AGBko lehendakari Miguel Ozcarizek, eta azken horrek OMEk (Osasunaren Mundu Erakundea) haragi gorriaren kontsumoaren gainean emandako iritziei buruz aritu da; hala, kontsumitzaileak Nafarroako Aratxea "lasaitasun osoarekin" jatera animatu ditu, "kalitate handiko proteina asko baititu, burdina, B12 bitamina, ura eta koipeak. Modu iraunkorrean eta ingurumena errespetatuz ekoizten den haragia, mendiguneetako populazioa mantentzen laguntzen du, eta Nafarroako qarapen ekonomikoari ere laguntzen dio".